

æek
22.korrika

1. ALBISTEA

2021/11/17



B1

MAILA

Badator 22. KORRIKA!

Hiru, bi, bat... eta, ekin! ELKARREKIN!

HITZ EKIN

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Irudia (AEK): 22. KORRIKA Gasteizen, Udalbiltzaren KMa



Asier Amondo Gorostizaga KORRIKA arduradunari elkarrizketa

“Euskara hitzetik ekintzara eramateko unea”

Azkenean esan dezakegu: “Badator KORRIKA!”. 2022ko martxoaren amaieran KORRIKA, euskararen aldeko¹ lasterketa erraldoia², Euskal Herrian ibiliko da berriro, gure herriak kolorez, musikaz, ilusioz eta, batez ere³, euskaraz jantziko ditu. Datorren urtekoa 22. KORRIKA izango da, eta, lasterketaren aurkezpena egiteko, AEK-k Donostiako San Telmo Museoa bildu ditu kazetariak. Bertan, Asier Amondo KORRIKA arduradunarekin hitz egin dugu.

Hilabete gutxi barru, KORRIKA ibiliko da Euskal Herriko kaleetan zehar... Jende askok espero zuen albistea da. KORRIKA “normala” aurreikusten al duzue?

Datorren urterako baditugu hainbat⁴ aukera mahai gainean; baina, ematen du agertoki⁵ baikorrenera goazela.

Baina, zer da KORRIKA? Nola azalduko zenioke ezagutzen ez duen bati?

KORRIKA euskararen aldeko lasterketa erraldoia da, Euskal Herrian egiten den ekimenik⁶ jendetsuena eta zirrargarriena⁷. 11 egunez, etenik gabe⁸, gau eta egun, 2.500 kilometro inguru egingo ditugu Euskal Herriko bazter guztietatik, mezu sekretua gordetzen duen lekukoa⁹ eskuz esku daramagula.

Eta horrekin guztiarekin, zer mezu transmititu nahi duzue?

“HITZEKIN” da edizio honen leloa¹⁰, eta bi hitzek osatzen dute: “hitz” eta “ekintza”. Hizkuntza bat hitzez osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea. Guk uste dugu ekiteko ordua dela: euskara hitzetik ekintzara eramateko unea.

Oraingoa 22. edizioa da. Askotxo da hori...

Eta guztietan ekimena etengabe haziz joan da. Zifra zehatzak ematea zaila da, baina esaten da hiru euskal herritarretik batek parte hartu duela.

Horregatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu ilusioa eta euskararen aldeko uholdea berreskuratzea: kalean, sareetan, ikastetxeetan, diasporan eta abarretan.

Horri lotuta, KORRIKA “mundiala” dela ere esan daiteke, ezta?

Bai, hala da! Mundu osoko 60 bat tokitako euskaldunek ere keinua egin nahi diote KORRIKari, kontinente guztietako hiri nagusietan: La Platan, San Frantziskon, New Yorken, Parisen, Berlinen, Bartzelonan, Bruselan, Shanghain, Tokion...

Eta hori guztia gutxi balitz bezala¹¹, KORRIKAREN “ahizpak” ere hor ditugu...

Bai, horixe da. Baditugu munduan zehar hizkuntza gutxituen alde antolatzen diren gure KORRIKAREN moduko ekimenak ere; hau da¹², KORRIKAREN ahizpak: Hego Amerikan, maputxkeen hizkuntzaren aldeko lasterketa (Lefkantun), Britainian (Ar Redadeg), Irlandan (Rith), Galesen (Ras yr Iaiith), Katalunian (Correllengua) eta Galizian (Correlingua).

Lehenengo edizio hura Oñatin hasi eta Bilbon amaitu zen. Nondik nora joango da 22. KORRIKA?

AEKn badugu “arau¹³ ez idatzi” bat: hurrengo KORRIKA beti hasiko da aurrekoa amaitu den herrialdean. 21. edizioa Gasteizen bukatu zenez, Arabatik abiatu behar zen, eta pentsatu genuen

Amurrio oso herri egokia zela 22. KORRIKari hasiera emateko. Amaiera-egunari dagokionez¹⁴, sorpresa gutxi: oraingoan Donostiari tokatu zaio lasterketa amaitzen ikustea. Baina, eguneroko ibilbide zehatza ezagutzeko, apur bat itxaron beharko duzue.

Ados, zain egongo gara, beraz! Dena den, ezer aurrera dezakezue KORRIKA alaituko duen kantaz?

Oraindik sekretua da; baina, laster entzun ahal izango duzue, eta zuen gustukoa izatea espero dugu!

21. KORRIKAK Txillardegi omendu¹⁵ zuen. Jakin daiteke nor omenduko duen 22. edizioak, ala hori ere sekretua da?

Bada, bai, hori aurreratzeko moduan gaude! Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak omenduko ditugu oraingoan. Zergatik beraiek? 34 urteko ibilbidea egin dutelako euskal munduan, eta euskaraz; eta eragileak¹⁶ direlako, orainaldiari eta etorkizunari begira daudenak.



Asier Amondo, Gorostizaga

Urtebeteko atzerapenez dator KORRIKA, eta, ezaguna denez, babes ekonomikoak ere badu garrantzirik...

Euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea da KORRIKAREN helburu nagusietako bat¹⁷, eta 22. KORRIKAK jasoko duen ekarpena¹⁸ Euskal Herri osoko bere euskaltegiei laguntzeko baliatuko du AEK-k. Administrazioetatik aurrerapausoak eman diren arren, oraindik badago zer hobetu. Materiala salgai egongo da, eta diru-bilketak ere egingo ditugu; dena den¹⁹, KORRIKA laguntzeko modurik onena KORRIKA LAGUNTZAILEA izatea da.

Izen-emate kanpaina hemendik gutxira jarriko dugu abian.

Tira, bada, ekin KORRIKARI...

Horixe! Bidelagun izango garelakoan, errepidean ikusiko dugu elkar!

► **Azpimarratu forma zuzenak, eta erantzun: egia ala gezurra dira?**

Subraya las formas correctas y responde: ¿son verdaderas o falsas?

Souligez-vous les formes correctes, et répondez: sont-elles vrais ou faux?



E G

- 1. Badirudi KORRIKA normala izango **da / duela / dela**.
- 2. Sekretua jakin da: mezua **daraman / darama / daramaten** lekukoa furgonetan gordetzen dute!
- 3. Aurtengo **leloa / leloak / leloek** "hitza", ekimenekin eta komunitatearekin lotu nahi ditu.
- 4. Esaten da euskal herritarren **erdik / erdia / erdiak** parte hartu duela KORRIKAN.
- 5. KORRIKA munduko leku **askotan / asko / askoetan** egingo da; zehazki, 61 lekutan.
- 6. **KORRIKA / KORRIKAK / KORRIKek** ahizpa asko ditu Euskal Herritik kanpo.
- 7. 22. KORRIKA Araban hasiko **du / da / zaio**, 21. KORRIKA han amaitu zelako.
- 8. Pirritx, Porrotx eta Marimototsek abestuko **dute / du / diote** aurtengo KORRIKA kanta.
- 9. Gutxi barru ekingo zaio KORRIKA LAGUNTZAILEA izateko **kanpaina / kanpainaren / kanpainari**.
- 10. KORRIKA LAGUNTZAILEA **izatea / izan / izateko** da KORRIKA ekonomikoki laguntzeko modu onena.

Hiztegia

¹ -ren alde: a/en favor de...; en faveur de...

² Lasterketa erraldoi: carrera gigante; course géante

³ Batez ere: sobre todo; surtout

⁴ Hainbat: bastantes; beaucoup

⁵ Agertoki: escenario; scène

⁶ Ekimen: iniciativa; initiative

⁷ Zirrargarri: emocionante; impressionnant,-e

⁸ Etenik gabe: sin parar; sans arrêt

⁹ Lekukoa: testigo; témoin

¹⁰ Leloa: eslogan; slogan

¹¹ Gutxi balitz bezala: como si fuera poco; comme si c'était peu

¹² Hau da: es decir; c'est-à-dire

¹³ Arau: norma; norme

¹⁴ -ri dagokionez: en cuanto a...; en ce qui concerne...

¹⁵ Omendu: homenajear; rendre hommage

¹⁶ Eragile: impulsor/a; promoteur, -trice, acteur

¹⁷ Nagusietako bat: uno/a de los/as principales; une des principales

¹⁸ Ekarpena: aportación; apport, participation

¹⁹ Dena den: de todos modos; de toute manière

PROZEDURA:

- ▶ KORRIKA irudiak dituen bideoa ikusi¹, eta irudien laguntzaz, lehen albistea aurkeztuko dugu.
- ▶ Bakarka, elkarrizketa irakurri, eta ulertzen ez dutena azpimarratuko dute (2.- 3. or.).
Oharra: ziur aski, hiztegitxoan ez dauden hainbat gauza azpimarratuko dute.
- ▶ Binaka lehenik, eta talde handian gero, zalantzak argitzen saiatuko dira.
- ▶ Bakarka, ariketa egingo dute (3. or.): forma zuzenak azpimarratu eta egia edo gezurra diren esan.
- ▶ Ondoko ikasleekin egindakoa alderatuko dute, eta elkarri zalantzak argitzen saiatuko dira.
- ▶ Talde handian zuzenduko dugu.

Erantzun zuzenak (azpimarratuta):

1. Badirudi KORRIKA normala izango **da** / **duela** / **dela**. EGIA
 2. Sekretua jakin da: mezua **daraman** / **darama** / **daramaten** lekukoa furgonetan gordetzen dute! GEZURRA
 3. Aurtengo **leloa** / **leloak** / **leloek** "hitza", ekimenekin eta komunitatearekin lotu nahi ditu. EGIA
 4. Esaten da euskal herritarren **erdik** / **erdia** / **erdiak** parte hartu duela KORRIKAn. GEZURRA
 5. KORRIKA munduko leku **askotan** / **asko** / **askoetan** egingo da; zehazki, 61 lekutan. GEZURRA
 6. **KORRIKA** / **KORRIKAK** / **KORRIKek** ahizpa asko ditu Euskal Herriatik kanpo. EGIA
 7. 22. KORRIKA Araban hasiko **du** / **da** / **zaio**, 21. KORRIKA han amaitu zelako. EGIA
 8. Pirritx, Porrotx eta Marimototsek abestuko **dute** / **du** / **diote** aurtengo KORRIKA kanta. GEZURRA
 9. Gutxi barru ekingo zaio KORRIKA LAGUNTZAILEA izateko **kanpaina** / **kanpainaren** / **kanpainari**. EGIA
 10. KORRIKA LAGUNTZAILEA **izatea** / **izan** / **izateko** da KORRIKA ekonomikoki laguntzeko modu onena. EGIA
- ▶ Amaitzeko, solasaldia egingo dugu (laguntzeko, 1.go **albistearen titularrak**² ikus ditzakezue): zer itxura hartzen diozue 22. KORRIKari? Gustuko duzue? Zein da zuen **KORRIKA IRUDIA**?
Oharra: KORRIKA irudiez hitz egiteko, 21. KORRIKArako sortutako "KORRIKA IRUDIAK" ikusi eta argazki bat edo batzuk aukeratzeko esan diezaiekezue (57 irudi daude zenbakituta). Ikusi ahala apunta ditzatela paper batean gehien gustatu zaizkien argazkiak... Ikasle bakoitzak zein argazki eta zergatik aukeratu duen esango du. Ondoren, euren "KORRIKA IRUDIA" zein den galdetuko diegu: oroitzapenean iltzatuta duten une edo irudiren bat...

HIZTEGI KUTXA, lexikoa ikasteko

- ▶ Ikasi nahi dituzten hitz berriak papertxoetan idatzi eta Hiztegi Kutxan sartuko ditugu.
- ▶ Hurrenko KORRIKA albistearen aurretik, edo beste uneren batean, Hiztegi Kutxako hitzekin jolasen bat proposatuko dugu, adibidez: "Marrazkitz!" edo "Tabu".

MARRAZKITZ!

Binaka jolastuko dira. Bikote bakoitzeko ikasle bati, kutxako papertxoa irakurtzen utziko diogu.

Ikasle guztiek hitzaren esanahia ulertu dutela ziurtatu ondoren, marraztu egin beharko dute paper batean, eta euren bikoteak hitza asmatu beharko du.

Hitza lehenengo asmatzen duen bikoteak irabaziko du.

TABU

Kontzeptuak marrazteko zailegiak badira, marraztu beharrean, ahoz egingo dugu.

Azalpenak ematen dituenak ezingo du hitza bera esan. Eman ahalko ditu adibideak, sinonimoak, azalpenak, noiz eta non agertu zen hitza...

Binaka jolastuko dira, eta hitza lehenengo asmatzen duen bikoteak irabaziko du.

¹ Bideoa "21. KORRIKA: Mila esker, Euskal Herria!" <https://www.youtube.com/watch?v=WcOFegbaW6A>

² Ikusi "1 albistea TITULARRAK.odp" dokumentua, pantaila handian ikusteko pentsatua. Aurkezpen moduan ikusiz gero, titularrak "efektuekin" ikusiko ditugu. Bestela, "1 albistea TITULARRAK.pdf" ere eskura duzue, nahiago izanez gero.